

Gazteen bizitza aktiborako trantsizioa: Euskal Autonomia Erkidegoko egoeraren azterketa, analisia eta ondorioak

Aitor Tena Eizagirre
Euskal Herriko Unibertsitateko ikaslea (UPV/EHU)

Artikulu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitza aktiborako trantsizioaren egoera aztertu da. Besteak beste, gazteen bizitza aktiborako trantsizioaren paradigma nagusiak aztertu ditugu, bakoitzaren oinarriak kontuan izanik. Horrez gain, aipatutako trantsizio horretan eragin zuzena duten hainbat faktore ere aztertu dira: hezkuntza, lana... Faktore horiek, ordea, modu isolatuan ulertzetik urrun, gaur egungo testuinguruan kokatu dira. Horrela, ondorioztatu da gero eta interkonektatuagoa eta prekarioagoa den mundu batean bizi garela egun, eta ziurgabetasun horrek eragindako aldaketek, hein batean, kolokan jarri dituztela orain arte ezagututako trantsiziorako egitura tradizionalak, hala nola lana edo hezkuntza. Amaitzeko, belaunaldi berriek bizi duten haustura ekonomikoak izan dezakeen bilakaeraren inguruan hausnartu da artikulan.

GAKO-HITZAK: Bizitza aktiborako trantsizioa · Gazteak · Hezkuntza · Lana.

Transition to active life of young people: review, analysis and conclusions of the situation in the Basque Autonomous Community

This article analyses the situation of the transition to active life in the Basque Autonomous Community. We have studied, among other things, the main paradigms of the transition to active life of young people, taking into account the fundamentals of each of them. In addition, a number of factors directly affecting this transition have been analysed: education, work. These factors, however, far from being understood in isolation, have been placed within the present context. Thus it has been concluded that we live in an increasingly interconnected and precarious world, and that the changes brought about by this uncertainty have partly compromised the traditional transition structures known to date, such as work or education. Finally, the article reflects on the evolution of the economic breakdown of the new generations.

KEY WORDS: Transition to active life · Young people · Education · Work.

1. Sarrera

Azken hamarkadetan, aldaketa handiak izan dira «gaztetasunetik heldutasunera igarotzeko» prozesuan. Gaur egun, iraganean ez bezala, gazteen bizitza aktiborako trantsizioa «ez dago hain argi eta hain definituta» (UPV/EHU, 2014); beste modu batera esanda, trantsizio hori ahalbidetu duten «arau-egitura tradizionalen ezegonkortasuna» handitu egin da (Moreno et al., 2012: 21).

Ondorioz, egungo testuinguruan «gaztetasuna luzatu egiten da», geroz eta ohikoagoa den ezegonkortasunaren eraginez (UPV/EHU, 2014). Horrek «adintxikitasun» amaigabe batera eraman ditu gazteak (Rodríguez, 2022: 360); hau da, «heldu bati aurreuposatzen zaizkion betekizunak» bete ezin izatera: «lan eta bikote egonkorak lortzea, etxebizitza bat jabetzan hartzea eta familia osatzea», besteak beste (UPV/EHU, 2014).

2. Marko teorikoa

Artikuluari hasiera emateko, gazteria kontzeptua definituko dugu eta gazteen bizitza aktiborako trantsizioaren paradigma nagusiak aztertuko ditugu.

Hasteko, esan genezake gazteak helduaroko erantzukizunak beren gain hartzeko prestatzen diren etapa dela gaztaroa. Garai horretan bizi-proiektuak definitzen dira, baita lehentasunak eta etorkizunak ezarri ere (Moreno et al., 2012: 7). Gazteen bizitza aktiborako trantsizioaren paradigmei dagokienez, Obra Social «La Caixa»-k 2012an argitaratutako *La transición de los jóvenes a la vida adulta. Crisis económica y emancipación tardía* txostenean bi paradigma nagusi bereizten dira. Alde batetik, prozesu hori gazteen aukeraketaren arabera azaltzen duen ikuspegia izango genuke. Interpretazio hori defendatzen duten autoreen artean ezagunena, ziurrenik, Jeffrey Arnett estatubatuarra izango litzateke. Bestetik, emantzipazio-prozesuen homogeneousotasuna azpimarratzen duen «ikuspegi psikologista eta indibidualista» horren aurrean, gizarte-estrukturen garrantzia nabarmentzen dute beste ikuspegi batzuek; izan ere, haien iritziz, egitura horiek «kolektibo horren bizitza-ikastaroak zehazten dituzte», eta testuinguru nazionalaren arabera desberdinak direla aipatzen dute (Moreno et al., 2012: 16-18).

Txosten horretan bereizten diren bi paradigma nagusien aipamen labur bat egin ostean, horietako bakoitzean sakontzen ahaleginduko gara jarraian, gehiegi luzatu gabe. Esan bezala, lehenengo paradigmak gazteen bizitza aktiborako trantsizioa gazteen aukeraketaren arabera azaltzen du. Arnett-ek *emerging adulthood* ('heldutasunaren ernatzea') terminoarekin, zehazki, adierazten du gazteek nerabezaroa utzi dutela, baina ez dituztela helduen rolak beren gain hartzen. Horrek, haren esanetan, «giza garapenaren aldi berri bat» sortzea ekarri du, gutxi gorabehera, 18 eta 29 urte bitartekoa, talde horretako pertsonen «heldu-estatusarekiko duten anibalentziagatik» bereizten dena (Guevara et al., 2019). Motzean azalduta, trantsizioa Arnett-en ikuspegitik honakoa litzateke: «Gazteak bere indibidualtasunetik bere nortasuna esperimendatzen eta definitzen duen prozesua» (Moreno eta Sánchez, 2020: 49).

Arnett-ek gazteen inguruan zabaltzen duen irudia —sinpletasunez esanda— «arduragabearena» dela esan genezake. Horri lotuta, Alain Badiou filosofo frantziarrak dio gaztaroari buruz iritzi oso kontrajarriak existitzen direla, «eta ez gaur egun bakarrik, aspaldidanik baizik». Horren arrazoi nagusietako bat, haren hitzetan, gazteoi eskaintzen zaizkigun bi aukera —edo Sokratesek aipatzen zituen «barne-etsai»— nagusietan egongo litzateke: «erre edo eraiki». Ondorioz, iritzi horien arabera gaztaroa une zoragarria delako ideiak topa ditzakegun era berean, bizitzako une izugarri bat dela ere pentsa dezakegu (Badiou, 2016). Castillok ere, Badiou-ren eskemari jarraituz, aipatzen du sistemak bi irtenbide eskaintzen dizkiela gazteei: «bizitza momentuko plazer azkarrak eskuratzerara bideratu» edo «sistemak aurrefabrikatutako bidea hartu», hau da, erre edo eraiki¹ (Castillo, 2018).

Bigarren paradigma nagusia, aldiz, gizarte-estrukturatan fokua jartzen duen ikuspegia da. Besteak beste, eragin handiena duten faktoreen artean «ongizate-estatuaren politikak, kultura, familia eta baldintzatzaile sozioekonomikoak» nabarmendu genitzake. Aurrez aipaturiko lau faktore horiek determinatzen dituzte gazteriaren «bizitza-ikastaroak», eta «testuinguru nazionalaren arabera desberdinak» dira. Arnett-ek defendatzen duenaren kontrara, paradigma honek argudiatzen du gaztaroa luzatzea «lan-merkatuarekin, egoera ekonomiko eta familiarrekin eta politika instituzionalekin zerikusia duten egiturazko faktoreen emaitza» dela (Moreno et al., 2012: 18).

Jordi Maiso filosofiako doktoreak dio ikuspegi psikologista eta indibidualistek gizartearen arazo estrukturalak indibidualizatu eta norbanakoaren arazoak izango balira bezala tratatzen dituztela, nahiz eta guztiz orokortuak dauden gure artean; kasu honetan, gaztaroaren luzatzea litzateke arazoa. Helburua, beraz, ez da arazo estruktural horiekin amaitzea, «ondorio kolektiboak ezkutatu eta indibidualizatzea baizik» (Aula Virtual Fundación de los Comunes, 2020). Julio Rubio Gómez hezitzaile eta idazle madrildarrak dio, bere iritzi, ez dela ezer lortzen arazo horiei erantzun indibiduala emanez: «Arazo estrukturaletarako irtenbide indibidualak adabakiak baino ez dira, eta, gainera, sistemaren mesedetan jarduten dute, hura hobetuz eta legitimatuz» (Rubio, 2013).

Hala ere, *La diversidad de las transiciones juveniles en España desde un análisis socio-demográfico* testuan azaltzen da aurrez landu ditugun bi teoria edo paradigmen arteko konbinazioak indar handia hartu duela azken urteetan, eta lehentasunezko ikerketa-ildo bihurtu da, *life course approach* (hau da, 'bizitzaren ibilbidearen teoria') deitu denaren esparruan. Ikuspegi horren abiapuntuko ideia da gazteen ibilbideek «gizarteko egiturazko faktoreek zehazten dituzten portaera indibidualei erantzuten dietela» (Moreno eta Sánchez, 2020: 50-51).

1. Badiou-k bizitza erretzea «berehalakoaren kultu nihilista» moduan definitzen du. Era berean, lotura egiten du «no future» lema ospetsuarekin, eta bide horrek ondorio iraunkorrik ez duela dio: «ez dago eraikuntzarik». Bizitza eraikitzea, aldiz, «botereen kultu kontserbatzaile» gisa deskribatzen du. Finean, bide horri jarraituz gero «ahalik eta baldintzarik onenetan» bizitzeko aukera izango dutela esaten zaie gazteei (Badiou, 2016). Hau da, «bizitza asegarri bat» izango dutelako agintza egiten zaie. Hala ere, kontuan izan behar dugu bi irtenbide horiek nahasturik ere ager daitezkeela gazteen artean. Castilloren arabera, «ez dago bat edo bestea soilik aukeratzen duenik» (Castillo, 2018).

Bi paradigma nagusi horietaz —eta horien konbinazioaz— gain, azken urteetako krisi-testuinguruan garrantzia hartu duen interpretazioa da gazteriaren gaur egungo bizi-eredua belaunaldi berrien gaineko interbentzio modura aztertzen duena. Bizi-eredu horretan koka genezake gaztaroaren luzatzea, besteak beste, lan-merkatuan integratzeko zailtasunak, emantzipatzeko ezintasunak edo etengabeko formakuntzaren ideiak determinatzen dutena. Hainbat autorek diote gazteriak kapitalarentzat funtzio garrantzitsua betetzen duela lan- eta bizi-baldintzei dago-kienez. Izan ere, «ekonomikoki, sistema honek subjektu debalatu gisa ekoizten du gazteria langilea, mekanismo ezberdinen bitartez bere lan-indarraren balioa murrizten baitu» (Ibarzabal, 2019). Gazteei zuzendutako lan-modalitate konkretuak horretarako mekanismoak lirateke; esate baterako, praktiketako kontratuak, Aldi Baterako Enpresak, Formakuntza DUALa... Horrek gazteriaren pobrezia handitzea ahalbidetzen du, *working poor*² gisa definitzen den fenomenoaren elikatuz. Termino horrek, zehazki, lanean ari diren eta, era berean, pobrezia pairatzen duten langileei egiten die erreferentzia.

Baina, soldata-debaluazio hutsaz haratago, «ofentsiba burgeserako tresna moduan» ulertu behar dugu krisia; hau da, «etorkizuneko lan- eta bizi-baldintzak langile-klase osora hedatzeko bitarteko gisa» (Santander, 2020). Burgesiak, etorkizuneko perspektiba galdu gabe, etengabe belaunaldi berrien gaineko interbentzio kultural zein ekonomikoa bultzatzen baitu (Ibarzabal, 2019). Tesi hori defendatzen duten autoreen arabera, azken urteetako krisia, beraz, ez da faktore koiunturaletara mugatzen; haien iritziz, kapitalismoaren baitan gertatzen diren «krisi guztiek kapitalaren gainbeheran dute jatorria», hau da, «gainbehera horren adierazpenak» baino ez dira (Goitiandia, 2021). Hori kontuan izanik, krisia ikuspegi ekonomikora mugatu beharrean, berregituraketa fase bezala ulertzen dute, ekoizpen-baliabideen eta langileriaren bizimoduaren egokitzapena sustatuko duena (Yenikoy, 2019).

3. Hezkuntza

Marko teorikoa aurkeztu ostean, gazteen bitzita aktiborako trantsizioan eragin zuzena duten zenbait faktore aztertuko ditugu jarraian. Aztertuko dugun lehenengo faktorea hezkuntza izango da.

Izan ere, hezkuntza eta lana izan dira, besteak beste, orain arte «gazteen trantsizioetarako erreferente izan diren arau-egitura tradizionalak». Hala ere, «gero eta interkonektatuagoa eta prekarioagoa den mundu eta merkatuaren ziurgabetasunak» eraginda gertatzen ari diren aldaketek egitura tradizional horiek ezegonkortzen laguntzen dute (Moreno et al., 2012: 21).

Gainera, ziurgabetasun horrek eragina du gure etorkizunari buruzko erabakietan. Hezkuntzari lotuta, esate baterako, horrek zailagoa egiten du laneratzeari, karrera profesional iraunkorrak eraikitzeari... buruzko erabakiak hartzea. Ondorio nagusia honakoa litzateke: «Eskema arautu eta aurreikusgarrietan oinarritutako emantzipazio-prozesuaren logika hausten da». Hau da, «trantsizioen linealtasuna

2. «Este fenómeno, al que nos referiremos usando el término anglosajón de *working poor*, consiste en el hecho de que una parte significativa de las personas europeas que se encuentran bajo el umbral de pobreza, trabajan» (Álvarez eta Medialdea, 2005).

zatitu egiten da eta, aldi berean, lan-, prestakuntza- eta familia-zutabe tradizionalen ezegonkortasuna areagotzen da» (Moreno et al., 2012: 21).

Europako hegoaldeko herrialdeen (Espainiako Estatuak, Portugal, Italia eta Grezia) eredu trantsizionalari dagokionez, esan genezake «egoitza-trantsizioak bultzatzea xede duten gazte-politiken urritasuna» dela eredu horren ezaugarri nagusietako bat. Horrez gain, eta bigarren atalean lantzen ari garen gaiarekin lotuta, herrialde horietako hezkuntza-sistema oso zurruna da prestaketa-ibilbideen (hau da, goi-mailako eta unibertsitateko ikasketak) hautaketan. Gainera, ez dago ibilbide egokirik «eskola-zikloetatik eta ziklo akademikoetatik lan-merkatura igarotzeko». Beraz, ondoriozta genezake «hezkuntzaren eta lanaren arteko desoreka horrek», erakundeen laguntza mugatuekin batera, areagotu egin duela «gazteen familia-mendekotasuna» (Moreno et al., 2012: 25).

Jarraian, orain arte aipatu ditugun fenomenoek gure gizartean hartzen duten forma konkretua aztertuko dugu, datuen bitartez; hala ere, ez gara mugatuko datuak ematera, horiek adierazten dituzten gizarte-joerak aztertzen ere saiatuko gara. Laburbilduz, aztertuko duguna, batik bat, izango da gizarteko ziurgabetasun-egoerak nola eragiten duen gazteen etorkizuneko erabakietan, baita EAEko gazteek hezkuntzari lotutako zer ibilbide hautatzen dituzten ere.

Hala ere, gaur eguneko datu edo joerak aztertzen hasi aurretik, une batez atzera botako dugu begirada, aurreko mendearen erdialdera. Esan genezake garai horretan esleitu zitzaizkion hezkuntzari —eta, konkretuki, unibertsitateari— gaur egun «galbidean» dagoen «masa-izaera» (Garin, 2022).

Izan ere, Bigarren Mundu Gerrara arte, unibertsitateko hezkuntza oso gutxi hedatutako esperientzia zen, «zuriak, gizonak eta diruarekin jaiok zirenek bakarrik eskura zezaketena». Jende gehienak «lantokian ikasita edo trebatuta» ikasten zuen bere lanbidea, eta mediku edo abokatu bezelako zenbait ogibidetan «autodidaktak» izan ziren nolabait, «XIX. mendearen amaieran graduondoko unibertsitatea formalizatu zen arte» (Petersen, 2021: 82).

Amerikako Estatu Batuetan, esaterako, 1940an hogeita bost urtetik gorako emakume estatubatuarren % 4k soilik zuen lizentziatura bat, eta % 5,9k gizonen kasuan. Biztanleriaren % 14k bakarrik amaitu zuen bigarren hezkuntza. 2018an, aldiz, hogeita bost urtetik gorako biztanleen % 90,2k bigarren hezkuntza amaitu zuen, eta % 45,4k lizentziatura edo unibertsitate-gradua zuen (Petersen, 2021: 82-83). Espainiako Estatuan ere datuek joera bera islatzen dute; esaterako, 1992 eta 2020 artean hirukoiztu egin da goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa 25-64 urteko biztanleriaren artean, % 12,8tik % 39,7ra (Ministerio de Educación y Formación Profesional, 2021: 106).

Emmanuel Rodríguez soziologoaren arabera, Espainiako Estatuan ere 1950 inguruan hasi zen «Moyano sistemaren zimenduak higitzera jo zuen eraldaketa sozial handia». Haren hitzetan, hezkuntzako elitismoa eraisterako garaian faktore garrantzitsuena «hezkuntza-gose berria» izan zen. Prozesu hori, ordea, ezin dugu gizarteko gainontzeko fenomenoetatik bereizita eta modu isolatuan analizatu;

Rodríguez-ek, zehazki, «klase ertainen gizartearen» sorreran jartzen du fokua. Izan ere, klase³ horren «eskola-tituluen eskariak batxilergo zaharreko sistema selektibo estuarekin talka egiten zuen». Beraz, ondoriozta daiteke Moyano sistema eraistea ezinbesteko baldintza zela hezkuntzari aipatutako masa-izaera esleitzeko, hura bateraezina baitzen «XIX. mendearen erdialderako aurreikusitako gutxiengoen batxilergoarekin zein unibertsitatearekin» (Rodríguez, 2022: 112-113).

Bestalde, Rodríguez-ek aipatzen du hezkuntzaren hedapena «gizartearen presio handiari erantzunez» egin zela. Horren adibide izango litzateke, esaterako, 70eko hamarkadako gizarte-mugimenduetan hezkuntza araturako sarbideak izan zuen «funtsezko tokia» (Rodríguez, 2022: 114). Hau da, kontuan izan behar dugu hezkuntzarako sarbidea «borroka gogor zein luzeen bitartez» lortu zuela langileriak, testuinguru konkretu batean: ongizate-estatuaren urte oparoetan (Gedar Langile Kazeta, 2021). Beraz, ez da harrizkoa gaur egungo testuinguruan, ongizate-estatuaren gainbeherarekin batera, hezkuntzaren masa-eredua deserakuntza-prozesuan egotea.

Ondorioz, esan genezake begi-bistakoa dela azken hamarkadetan gora egin duela goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen kopuruak; nahiz eta, aurrez aipatu moduan, zenbait autorek dioten azken urteetan joera hori aldatzen ari dela. Hala ere, beharrezkoa da goi-mailako ikasketa horien baitako sailkapena egitea, hau da, zenbat pertsonak hautatzen duten Lanbide Heziketaren edo unibertsitatearen ibilbidea, baita zerk bultzatzen dituen horretara eta euren etorkizun ziurgabera begira zer eragin izan ditzatekeen.

2019/20 ikasturteko EAEko datuen arabera, Lanbide Heziketan guztira 37.118 ikasle matrikulatu ziren. Horien artean, 15.102 ikasle erdi-mailako zikloetan eta gainontzekoak, 22.016 ikasle, goi-mailako zikloetan (EUSTAT, 2021c). Espainiako Estatuko datuei erreparatzen badiegu, azpimarratu beharra dago Lanbide Heziketa joera gorakorra izaten ari dela ikasle kopuruari dagokionez. Esaterako, 2019/20 ikasturteetik 2020/21 ikastertera bitartean % 9,3 handitu zen kopurua. Hala ere, perspektiba zabalagoarekin begiratzen badugu, azken hamar urteetan ikasle kopurua % 65 igo dela adierazten dute datuek (El Economista, 2021).

Adituen arabera, Lanbide Heziketa bere modalitate guztietan ari da gora egiten. EAEn, 2019/20 ikasturteko datuen arabera, «20 urtetik beherakoen artean, % 76 Batxilergoan matrikulatu zen, eta gainerako % 24k erdi-mailako Lanbide Heziketa aukeratu zuen». Baina pixkatxo bat sakonduz gero, adinari erreparatuz, ohartuko gara «16 urteko ikasleentzat erdi-mailako lanbide-irakaskuntzak aukera minoritarioa izan arren», aukera horrek «presentzia handiagoa» hartzen duela adinak gora egin ahala. Adibidez, 18 urteko ikasleen kasuan, % 39,6 dago Batxilergoan matrikulatuta eta % 60,4 erdi-mailako Lanbide Heziketan; 20 urtetik gorakoen artean, aldiz,

3. Klase ertainaz ari garenean, ez gara ari «bere horretan klase sozial bati buruz hizketan». Izan ere, ikuspegi marxistatik klaseak produkzio-harreman sozialean daukaten posizioaren arabera definitzen dira. Klase ertainaren kasuan, barnean posizio desberdinak aurki daitezke; esan daiteke «klase-estratu ezberdinek osaturiko konglomeratu» bat dela. Izan ere, klase ertainaren baitan bat egiten dute langile-klasearen goiko estratuak (langile-aristokrazia) eta burgesiaren beheko estratuak (burgesia txikia). Klongomeratu hori «funtzio politiko konkretu batean» oinarritzen da: «Klase-antagonismoa neutralizatu eta harmonia bihurtzea» (Askunze, 2020).

soilik %14 dago Batxilergoan matrikulatuta eta gainontzekoak, % 86a, erdi-mailako zikloetan (EUSTAT, 2021c)

Bestetik, goi-mailako Lanbide Heziketari erreparatzen badiogu, azken urteetan geroz eta ohikoagoa bihurtzen ari den fenomeno bat aipatu behar dugu: unibertsitateko ikasketak amaitzean Lanbide Heziketa ikasten duten pertsonak. Zehazki, 2022ko datuen arabera, «unibertsitateko ikasleen % 20k LH egiten du karrera amaitzean». 35 urtetik gorako graduatuen % 25 baino gehiago matrikulatzen da goi-mailako zikloetan; 30 urtetik beherakoen kasuan, aldiz, % 7 inguru (20 minutos, 2022).

Lanbide Heziketa Dualaren kasuan ere, azken urteetan gora egin du modalitate horren aldeko apustua egiten duten ikasleen kopuruak, baita enpresenak ere. 2019/20 ikasturteko datuen arabera, EAEn 2.639 ikasle eta 1.435 enpresa ari ziren Lanbide Heziketa Dualean parte hartzen, eta aurreko ikasturteko datuekin alderatuta, gora egin zuen eredu horren matrikulazioak (EITB, 2020).

Unibertsitateko ikasketei dagokienez, 2019/20 ikasturtean 68.237 ikasle zeuden izena emanda. Horietatik gehingoak gradu-ikasketak egin zituen; zehazki, 57.534 izan ziren. Bestetik, 6.230 ikasle masterretan matrikulatu ziren. Eta, azkenik, 4.473 pertsona doktoretza egiten ari ziren une horretan, hau da, ikerketa-lanak egiten (EUSTAT, 2021a).

Beste alde batetik, aipatu beharra dago EAeko ikasle kopurua aztertzeko orduan hainbat hutsune topa ditzakegula, hainbat faktoreren eraginez. Horietako bat eskola-uzte goiztiarra edo eskola porrotarena izango litzateke. Izan ere, honakoa kontuan izaten ez badugu, ohartuko gara datuetan hutsuneak topatuko ditugula; hala ere, esan behar da posible dela datuen —eta horien arteko koordinazioaren— falta kasuala ez izatea, eta instituzioen partetik intenzionalitatea existitzea, emaitzak zurrizera begira. Eskola-uzte goiztiarraren tasari⁴ erreparatzen badiogu, 2019 urtean % 8,8koa zen, 2018koa baino % 2,5 txikiagoa (EUSTAT, 2020).

Atal honi amaiera emateko, orain artekoarekin lotuta, esan genezake gazteen artean eskolarekiko konfiantza-galtzea gertatzen ari dela «gizarte-mugikortasunerako bide gisa» (Rodríguez, 2022: 128), Ergo Pro eta III Pekeño raperoen *Riquelme & Okocha* abestiaren esaldi honetan antzeman daitekeen moduan: «Pa' los niños que me escuchan en serio / Es mejor un grado medio / Que pillar un gramo y medio» (MG Knowledge, 2022). Horrek zerikusi zuzena du, Rodríguez-en hitzetan, «tituluen debaluazioarekin, irakaskuntza-sistemaren dualtasunarekin eta hezkuntza-ibilbideen zurruntasun gero eta handiagoarekin» (Rodríguez, 2022: 128). Ikasle Abertzaleak antolakundeak, norabide horretan, azken ikasturteetan adierazi du «inplizituki ikasketa prozesu kapitalista joko kanpo» uzten ari dela «ikasleriaren sektore proletarizatuena» eta horrek zera dakarrela, «ikasleria langileak orain artean jakintza akademikora izandako sarbidea erabat ukatua izatea» (Gedar Langile Kazeta, 2021). Beste modu batera esanda, hezkuntza geroz eta eraginkorragoa bihurtu da «edukogenoak» ez diren segmentuak bahetzeko orduan, hau da, «kapital kultural eta ekonomiko txikiagoa» dutenak. Aldi berean, «balio handiko titulu eta kredentzialak dituzten elite sozialak» erreproduzitzen ditu (Rodríguez, 2022: 128).

4. «Gehienez bigarren hezkuntzako lehen etapa burutu eta inongo ikasketa edo prestakuntzatan ari ez den biztanle-ehunekoa» (EUSTAT, 2020).

Makazagaren arabera, «gizarteko sektore pobreenek ez dute derrigorrezko hezkuntza baldintza egokietan egiteko bermerik». Berme hori are txikiagoa izango litzateke goi-mailako ikasketei dagokienez. Fenomeno horren adierazleetako bat izango litzateke, dudarik gabe, aurrez aztertutako eskola-porrota edo -uztea; hala ere, Makazagaren hitzetan, modu horretara deituta «apaindu ohi da» fenomeno, horren atzean ezkututzen den «klase arrakala nabarmena» ezkututzen den bitartean. Izan ere, «Espainiako Estatuan goi mailako ikasketak dituzten gurasoen seme-alaben artean % 3,6koa da eskola uztea; lehen mailakoak dituztenen edota ikasketarik ez dutenen artean berriz, % 39,2koa» (Makazaga, 2021).

4. Lana

Aurreko atalean azaldu dugun moduan, hezkuntzarekin batera gazteen bizitza aktiborako trantsizioan eragin zuzena duen faktore nagusia, hezkuntzarekin batera, lana da. Atal honetan, hezkuntza-ibilbideak lanarekin zer lotura duen aztertuko dugu eta, bestetik, gazteen lan-egoera orokorra.

Hasteko, hezkuntzaren eta lanaren arteko lotura aztertuko dugu. Izan ere, ukaezina da bi egitura sozial horien artean existitzen den lotura, iraganeko «eskema arautu eta aurreikusgarriak» pixkanaka higitzen ari diren arren gaur egungo testuinguruan, ezegonkortasunaren areagotzearen bitartez. Horrek, aurreko atalean azaldu gisara, eragin nabarmena du etorkizuneko erabakiak hartzeko orduan (Moreno et al., 2012: 21).

Hala ere, ikerketa ugari adierazten dute hezkuntza-maila «erabakigarria» dela enplegua mantentzeko. Esaterako, datu adierazgarria da «hezkuntza-maila altuagoa duten gazteek hezkuntza-maila baxukoek baino bi edo hiru aldiz aukera gutxiago» dutela langabezia jasateko. Dena den, argi izan behar dugu kualifikazioak ez duela «lan-arrakasta bermatzen», are gehiago ziurgabetasuna erabat hazten ari den garaian (Moreno et al., 2012: 85-86).

Fenomeno horren adierazle nagusia, zalantzarik gabe, galkualifikazioa izango litzateke. Izan ere, Espainiako Estatuan, laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieratik, «euren titulazioa baino txikiagoa eskatze den okupazioetan enplegatutako unibertsitarioen ehunekoa % 30etik gorakoa da». Zifra hori Europar Batasuneko handiena da, eta gainera, «intzidentzia hori are handiagoa da talde gazteen artean» (Moreno et al., 2012: 51). 2019ko datuen arabera, esaterako, Espainiako Estatuko gazteen % 38,8k «hezkuntza-maila handiagoa zuen orduko enpleguetako zereginak betetzeko behar zuen kualifikazioa baino» (Soler, 2021).

Jarraian, aipatutakoarekin lotura eginez, hezkuntza-ibilbideak lanarekin zer lotura duen aztertzen saiatuko gara. Horretarako, lehendabizi Lanbide Heziketako datuak aztertuko ditugu. HETELek⁵ eskainitako datuen arabera, «hiru etapetako HETELeko heziketa ziklo guztien batez besteko laneratzea % 66,1koa izan zen 2020an, eta % 72,5ekoa 2021ean» (HETEL, 2021).

5. Euskadiko gizarte-ekimeneko Lanbide Heziketako 30 ikastetxe biltzen dituen elkarte bat da, 1987an sortu zena.

Aurrez aipatzen genuenarekin lotuta, HETEL elkartetik ere azpimarratzen dute «zenbat eta kualifikazio handiagoa, orduan eta laneratze-tasa handiagoa» izango dela. Zehazki, datuen arabera, goi-mailako graduak eskaintzen du enplegarritasun handiena: % 75,7. Hori gertatzearen arrazoi nagusia, elkartearen hitzetan, Euskadin «fluxu adimendun» bat egotea da, hau da, «maila baxuagoko titulazioak dituzten ikasleek kualifikazio handiagoko etapetarako ikasketak egiten jarraitzen» dute (HETEL, 2021).

«Ebidentzia objektiborik» ez izan arren, HETELek dio ikasten jarraitzea erabakitzen duten OLHko ikasleak nagusiki erdi-mailako zikloetara doazela. Konkretuki, OLHko ikasleen % 45 erdi-mailako ziklo batean matrikulatzen dela diote. Erdi-mailako zikloetan ere antzeko fenomeno gertatzen da; izan ere, ikasleen % 41ek ikasketekin jarraitzen du, eta uste da «gehienek goi-mailako zikloetara egiten dutela». Hala ere, aipatzen da beste askok «enplegarritasuna hobetuko duten erdi-mailako ziklo osagarrietan» matrikulatzea erabakitzen dutela. Amaitzeko, goi-mailako zikloko ikasleen kasuan, «% 27k berriro ikasten jarraitzen du lan munduan sartu aurretik». Ikasle batzuek «beren gaitasunak osatuko dituen eta lan aukeren espektro handiago bati heltzea ahalbidetuko dien beste Goi Mailako Ziklo bat» egitea erabakiko dute; beste batzuek, aldiz, unibertsitate-gradua egitea (HETEL, 2021).

Lanbide Heziketako datuekin amaitzeko, LH Dualaren datuak aztertuko ditugu. LH Dualak ikaskuntza-prozesuak konbinatzen ditu lantoki eta ikastetxeetan, eta gazteak lan-merkatuan sartzeko bidea erraztea bilatzen du. HETELek eskainitako datuek adierazten dutenaren arabera, «sistema tradizionalenaren bidez garatutako» LHko ikasleekin alderatuta, hobeak dira datuak. Izan ere, «LH Duala egin duten ikasleen laneratzea, 6 hilabeteren buruan, % 75,5era iritsi da» (HETEL, 2021).

Unibertsitateko datuak aztertuko ditugu jarraian. Hasteko, argitu beharra dago, Lanbide Heziketako promozioen kasuen aldera, unibertsitateko ikasleen lan-munduratzearen azterketa ez dela egiten titulazioa lortu osteko lehenengo urtean, baizik eta ikasketak amaitu eta hiru urteren buruan. Hori kontuan izanik, Gazteen Euskal Behatokiak dioten moduan, «ez da egokia emaitza hauek zuzenean alderatzea Lanbide Heziketako ikasketak egin dituztenen emaitzekin» (Gazteen Euskal Behatokia, 2019).

2019an Euskadiko gazteen egoeraren inguruan argitaratutako diagnostikoan, Gazteen Euskal Behatokiak eskainitako datuek adierazten zuten 2014ko unibertsitate-promoziokoan artean, enplegu-tasa⁶ % 83,5 zela, 2017an egindako inkestaren arabera. Datu hori, txostenean adierazitakoaren arabera, altuena zen 2009tik. Hala ere, portzentaje horrek ez du argitzen enpleguak ikasketekin lotura zuzena duen ala ez. Hori argitzeko, hurrengo datua kontuan izan behar dugu: inkestan enplegua zutela esan zuten artean, % 77k adierazi zuen beren enpleguak «lotura handia edo nahikoa» zuela egindako ikasketekin (Gazteen Euskal Behatokia, 2019).

2020an Lan Bizitza Aktiborako Sarrerari buruz Lanbideak argitaratutako azterlanean, UPV-EHU 2017an graduatutako promozioan oinarrituta dagoena,

6. «Enplegu tasa soldatapeko enplegu bat duten edo jarduera independente bat egiten duten pertsonen portzentajea da, erantzun guztien gainean» (UPV/EHU, 2021).

enplegu-tasa % 81 dela aipatzen da. 2016ko promozioaren (% 84) datuekin alderatuz gero, antzeman daiteke tendentzia beherakorra dela; izan ere, aurreko promozioan baino % 3 gutxiago dago lanean (Lanbide, 2020; UPV/EHU, 2021).

Bestalde, enplegua duten pertsona horien artean, ikasketei lotutako enplegua dutenak % 86 dira (Lanbide, 2020; UPV/EHU, 2021). Hala ere, esan beharra dago errentaren datuak zalantzan jartzen duela ikasketek lanarekin duten lotura. Izan ere, 2019ko EUSTATen datuen arabera, 18-24 urte bitarteko pertsonen lan-errenta⁷ 3.830 € zen eta 25-29 urte artekoena, 13.782 € (EUSTAT, 2021b). Unibertsitateko ikasketak egin dituzten pertsonen laneratzeari erreparatzen badiogu, Lanbideren azterlanaren arabera, batez beste gradua amaitu eta 11 hilabetera topatzen dute lehenengo lanpostua (Lanbide, 2020).

Atal honi amaiera emateko, hezkuntza-ibilbideak lanarekin zer lotura duen aztertu ostean, gazteen lan-egoera orokorra izango dugu hizpide. 16-29 urte arteko gazteen jarduera-tasari⁸ dagokionez, % 52,2koa zen 2020an Espainiako Estatuan; beraz, inaktibo zegoen biztanleria % 47,8 zen. Enplegu-tasa, aldiz, % 36,4koa zen, eta langabezia-tasa⁹ 15,8koa. Bestalde, esan beharra dago lanean ari diren gazteen %20,2 bazterkeria eta pobrezia errearen arriskuan dagoela (Consejo de la Juventud de España, 2020). Biztanleria osoari erreparatzen badiogu, soldatapeko langileen %13 pobrea da, INEren datuen arabera (Alonso, 2020). Horri egiten dio erreferentzia artikuluaen hasieran aipatzen genuen *working poor* terminoak, hau da, lanean ari diren eta pobrezia egoeran dauden langileen kopuruari.

Baina, gobernu baten edo bestearen «gestio txarraren» ondorio izatetik urrun, argi izan behar dugu azken urteetako krisia eta haren eraginez sortutako arazoak —*working poor* fenomeno, esaterako— kapitalismoaren kontraesanen emaitza direla (Maiso, 2016). Azken hilabeteetan kontraesan horien adierazpenak ari gara bizitzen; adibidez, inflazioak eragindako pobretzea. Gazteen kasuan ere, pisu handia du inflazioak; izan ere, 2008ko krisia hasi zenetik «bizitzaren kostua gero eta handiagoa da». 20-25 urte bitarteko gazteen artean, batez besteko soldata gordina 12.640,65 eurokoa izan zen 2019an, eta % 5 jaitsi zen 2008 urtekoarekin alderatuta (Del Rosal, 2021); bizitzaren kostua, aldiz, % 13,7 igo zen 2008tik 2019ra, INEren datuen arabera (ABC, 2019).

5. Etxebizitza eta beste hainbat ideia solte

Aztertuko dugun hurrengo aldagaia etxebizitza izango da, aurrez landu ditugun beste faktoreekin lotura zuzena duena. Izan ere, begi-bistakoa da hezkuntza-ibilbideak eta lan-egoerak erabat baldintzatzen dutela gazteek etxebizitzaren auziarekin duten harremana.

Datuei erreparatuz, 2020an Espainiako Estatuan 16 eta 29 urte artekoen % 15,8

7. «Lan-errentatzat hartuko da enplegatzaileak bere konturako langileari, honek sarreren aldirian zehar egin dituen lanen ordain gisa, ematen dion guztizko ordainsaria (diruzkoa izan zein ez)» (EUSTAT).

8. «Biztanleria osoarekiko pertsona aktiboen proportzioa» (EUSTAT).

9. «Talde jakin batean langabezia dagoen biztanle aktibo kopuruari esaten zaio langabezia-tasa» (EUSTAT).

soilik zegoen emantzipatuta, 1999 urtetik izandako daturik apalena. Datuek frogatzen dute urtez urte kopurua jaisten joan dela; esaterako, 2014an % 21,1 zen datua, eta 2019an, urtebete lehenago, % 18,5. Beraz, begi-bistakoa da joera beherakorra dela gaur egun gazteen emantzipazioari dagokionez (Consejo de la Juventud de España, 2020).

Urte horretan, etxebizitza independente batean bizi ziren 16 eta 29 urte bitarteko biztanleen erdiek baino gehiagok —% 57,5ek— alokairuaren formula aukeratu zuten, «nahiz eta gehiegizko ahalegin ekonomikoa egin». Zehazki, gazte horiek soldataren % 91,6 bideratu behar izan zuten alokairura. Egia da, a priori, hipoteka-kuota ordaintzeko soldataren proportzio txikiagoa gorde behar dela —% 55,1—; baina, era berean, begi-bistakoa da etxebizitza erostea «oso murriztailea» dela gazte gehienentzat, «hipoteka-finantzaketa eskuratzeko baldintzak eta hasierako ordainketa estaltzeko beharrezkoa den aurrezpena direla eta» (Consejo de la Juventud de España, 2020).

«Familiaren etxetik irteteko» alternatiba merkeena —eta errazena—, kasu gehienetan, «etxebizitzaren alokairua beste pertsona batzuekin partekatzea» izan ohi da. Zehazki, lanean ari den pertsona gazte batentzat, partekatutako etxebizitza bat alokatzeko kostua diru-sarreraren % 27,8 izango litzateke. Gutxi gorabehera, bakarrik bizi zirenen kostuen herena (Consejo de la Juventud de España, 2020). Horri lotuta, esan beharra dago Espainiako Estatuan pisua partekatzen duten pertsonen batez besteko adina 33 urtera igo dela, 2021 urteko datuen arabera. Gainera, horrek esan nahi du adina bi urte igo zela 12 hilabeteko epean, batezbestekoa 31 urtekoa baitzen 2020an (HuffPost, 2021).

Etxebizitzaren auziak, aurrez aipatu ditugun beste hainbat faktoreekin batera, eragin zuzena du beste aldagai batzuetan, esaterako, gaur egungo jaiotza-tasan¹⁰. 2020ko datuen arabera, jaiotzek behera egin dute EAEn, «1941az geroztiko minimo historikoraino». Urte horretan, zehazki, 14.721 haur jaio ziren, aurreko urtean baino 697 gutxiago. Datuak sakontasunean ikertuz, ohartuko gara amen % 35,2k 30-34 urte bitartean dituztela eta % 32,8k 35-39 urte. Bestetik, 25-29 urteko bitartean ama izan direnak % 13,8 dira. Azkenik, 40 urtetik gorako amak —% 11,2— gehiago izan dira 25 urtetik beherakoak baino —% 7— (Prat, 2021).

Rosa Luxemburgok zioen soldatek jaiotza-zein heriotza-tasan¹¹ eragin nabarmena zutela. Izan ere, soldatak «bizirauteko oinarrizkotik» gora handitzen zirenean langileek seme-alaba gehiago izaten zituzten. Horrek, era berean, soldatak jaistea eragiten zuen, «langileen kompetenziaren ondorioz»; beraz, esan genezake soldatek jaiotzetan zein heriotzetan influentzia duten moduan, horiek ere soldatan eragiten dutela. Soldatak «bizirauteko bitartekoak eskuratzeko nahikoa ez zirenean», aldiz, langile ugari hiltzen ziren, soldatak berriro igotzea eraginez (Luxemburgo, 1974). Gaur egunera ekarriz, eta aurrez ikusi ditugun datuetan oinarrituta, ohar gaitzke gure gurasoen edo aitona-amonen belaunaldietan baino haur gutxiago jaiotzen

10. «Urte jakin batean jazotako jaiotza-kopuruaren eta urte horretarako batez besteko biztanleriaren arteko erlazioa da» (EUSTAT).

11. «Urte jakin bateko heriotza-kopuruaren eta urte horretako batez besteko biztanleriaren arteko erlazioa» (EUSTAT).

ari direla; besteak beste, soldata baxuen eta bizitzeko baliabideak eskuratzeko zailtasunaren ondorioz. Hala ere, beste hainbat faktore aztertzea ere ezinbestekoa da fenomeno hau lantzerakoan; esaterako, aldaketa kulturalak.

Horri lotuta, esan daiteke «erreproduzio biologia harreman kapitalistek definitua» dela, «kapitalak bere beharren arabera konfiguratzeko duelarik». Hau da, herrialde bakoitzean, haren garapen-mailaren arabera, jaiotza-tasa norabide batera edo bestera bideratzen da «bitarteko legal, kultural zein ideologikoen bitartez». Beste modu batera esanda, «norbanakoaren borondatea sozialki determinatuta» dago; izan ere, «kapitalak dauka gure gorputzen eta lan prozesuen gaineko erabakimena, beraiek inposatzen baitituzte baldintza material, sozial zein kulturalak» (Perez, 2021). Finean, ondoriozta genezake guraso izatearen erabakia ez dela —gutziz— askea, testuinguruak baldintzatzen duela gure erabakia, eta ez —soilik— gure nahi partikularrek.

6. Ondorioak

Amaitzeko, aurreko ataletan egindako azterketa eta analitiko ondorioak ateratzen ahaleginduko gara. Horretarako, begirada pixkatxo bat atzera botako dugu, *La transición de los jóvenes a la vida adulta. Crisis económica y emancipación tardía* txostena oinarri hartuta.

Aurrez aipatu bezala, txostena 2012an argitaratu zen, 2011 urte ospetsu eta gatazkatsuen «biharamunaren» erdian. Slavoj Žižek filosofo esloveniarrak horrela definitu zuen urte hura: «Arriskutsuki amestu genuen urtea». Izenburu hori jarri zion zeresan handia eman zuen liburuari, mundu osoan gertatu zen «politika emantzipatzaile erradikalaren berpiztea» analizatzea xede zuena (Žižek, 2013). Besteak beste, Occupy Wall Street, 15M... fenomenoak aztertu zituen bertan.

Obra Social «La Caixa»-ren txostenean azaltzen den moduan, urte horietan «eraldaketa sakoneko une» batean murgilduta zeuden Espainiako Estatuak zein Europa, eta gazteak, konkretuki, «krisi ekonomikoaren ondorioek gehien kaltetutako kolektiboetako bat» ziren. «Ezegenkortasun ekonomikoaren abagune horretan», mundu osoko gazteek bat egiten zuten «gizarte-eredu globalizatuaren berrikuspenera» eskatzeko, baita «ordezkaritza politiko eta instituzionaleko mekanismoak» demokratizatzea ere (Moreno et al., 2012: 9).

Azken hori kontuan izanda, Emmanuel Rodríguez soziologoak *El efecto clase media. Crítica y crisis de la paz social* liburuan azaltzen du 15M mugimenduaren barnean «posizio kontserbadore bat» existitzen zela, «eta ziurrenik gehiengo» izango zela dio. Izan ere, haren hitzetan, mugimenduaren izaera kontserbadorea «demokrazia berrezartzeko asmo berean oinarritzen zen» (Rodríguez, 2022: 370). Jose Castillok, esaterako, lotura zuzena egiten du 15M mugimenduaren eta klase ertainaren artean. *Diez años del 15M: ¿qué viene ahora?* testuan dio 15Mren kasuan «klase-posizio eta subjektibotasun autopertzibitu oso zehatza» topa dezakegula: «2008ko krisiaz geroztik deskonposizioan dauden klase ertain batzuen ondorengo zuzenena» (Castillo, 2021).

Azken finean, esan genezake «15M belaunaldia» bezala ezagutu izan duguna «adin-txikitasun» konstante eta amaigabe moduko batera kondenatua izan zela (Rodríguez, 2022: 360). Beste modu batera esanda, eta artikuluan zehar azaldu dugun gisara, bizitza aktiborako trantsizioa xede duten egitura tradizionalen ezegonkortasunak gaztaroa luzatzea ekarri du (Moreno et al., 2012: 21). Hori litzateke, besteak beste, belaunaldi horren altxamendua eragin zuen arrazoi edo kausa nagusietako bat.

Baina zeri egiten dio erreferentzia Rodríguez-ek «adin-txikitasuna» aipatzen duenean? Motzean, klase soziala edo ikasketa-mailagatik —hasiera batean behintzat— zegozkien arlo guztietan «esperientzia mugatua» zutela (Rodríguez, 2022: 362). Hau da, Castillok bere artikuluan aipatzen dituen «aspirazioak», berezkoak edota naturalak ziruditenak, ez zirela betetzen ari (Castillo, 2021).

Aurreko mobilizazio-ziklo horretatik atera beharreko ondorio nagusia da, nire iritziz, 15Mren izateko arrazoiak, azken finean, klase ertainen gizartearen berrezarpenean oinarritzen zela, hau da, «dena ondo zebilen kapitalismo batera» (Castillo, 2021). Rodríguez-en hitzetan, «bokazio zaharberritzailea» zuen mugimenduak, eta «antzinako itun sozial fordistaren elementuak» berreskuratu nahi zituen, «ongizate-estatuan kristalizatuak» (Rodríguez, 2022: 374)

«Paradigma politiko berri» baten aurrean gaudela diote hainbat autorek. Hamar urte igaro dira jada plazen okupazioetatik, eta argi dago ordutik «krisi kapitalista, COVID-19aren pandemiak orain sakondu duena, areagotu baino ez dela egin». Horrek eragin zuzena izan du «azken urteetan politizatu diren gazte gehienen pertzepzio subjektiboan» (Castillo, 2021).

Zehazki, Castilloren hitzetan «protesta-ziklo berri» honetan, 15Mren aldera, jada aspirazioa ez litzateke izango «klase ertainen gizarte horri berriro lotu ahal izatea». Izan ere, «kultura hori eta bere forma politikoak» ezagutu ez dituen belaunaldi batekin egiten dugu topo (Castillo, 2021). Horri lotuta, gazteen artean oso hedatuta dagoen ideia bat da, telebistan behin eta berriz entzuten duguna, gure gurasoen belaunaldiarekin alderatuta askoz baldintza kaskarragoetan biziko garela. Hori kontuan izanda, hainbat agente politikok aurreko belaunaldiekiko haustura gertatu dela diote, «haustura ekonomikoa» (Ibarzabal, 2019).

Ibarzabalek, adibidez, dio «haustura ekonomiko horrek atzera bueltarik ez duen arren, eta ezagututako bizi-baldintzak berreskuraezinezak izanda ere», gazteei etengabe esaten zaiela «bizi ziklo honek eskaintzen dizkigun aukerak aprobe txatu behar» dituztela: irabazten duten diru apurra xahutu, hara eta hona bidaiatu... Hau da, Badiou-ren eskema birgogoratuz, bizitza erretzea da, autorearen hitzetan, gaur egun gazteei transmititzen zaien mezua (Ibarzabal, 2019).

Hala ere, filosofo frantziarrak zioen gazteoi beste irtenbide bat ere eskaintzen zaigula: eraiki (Badiou, 2016). Marko teorikoan azaldu dugun bezala, Castillok irtenbide hori «sistemak aurrefabrikatutako bidea» hartzearekin identifikatzen du (Castillo, 2018). Ken Loach zinema-zuzendari britainiarraren *Sorry we missed you* (2019) filmeko eszena batek fenomeno hau bikain deskribatzen du. Seb (familiako

seme nagusia) graffitiak egiteagatik atxilotu ostean, komisaldegian daude mahai baten bueltan eserita polizia bat, Seb eta bere aita. Eta polizia honakoa esaten dio gazteari:

Tengo una idea. Empieza a cambiar a partir de ahora, ¿eh? Siéntate derecho, levanta la cabeza y mírame a los ojos. Hagámoslo bien, este es un momento importante para tí. Un momento importante, joven. Si lo que quieres es seguir con esta conducta, no tendrás más que desgracias y disgustos, y no sólo tú, sino también tu familia, ¿vale? La alternativa es aferrarte a esta ocasión, esta oportunidad que te estoy brindando. Céntrate, termina tus estudios, consigue un trabajo, un coche, vacaciones... no sé qué quieres hacer, pero tendrás el orgullo de saber que lo has hecho, lo has pagado, te lo has ganado (Loach, 2019)

Eszenan argi ikusten da zein den sistemak aurrefabrikatutako bide hori: ikasketak, lana, familia, autoa, oporrak... Horiek izango lirake lanaren hasieran aipatzen genituen «eskema arautu eta aurreikusgarriak». Hala ere, polizia —tonu paternalistan— bide horri jarraitzeko «gonbita» egiten dion arren, begibistakoa da eskema horiek hausten ari direla. Hau da, «trantsizioen linealtasuna zatitu egiten da eta, aldi berean, lan-, prestakuntza- eta familia-zutabe tradizionalen ezegonkortasuna areagotzen da» (Moreno et al., 2012: 21).

Hala ere, linealtasuna hausten ari den bitartean, gazteen bizi-baldintzetan gertatzen ari diren aldaketak normalizatzen ari direla salatzen du Ibarzabalek: «Langabeziaren existentzia orokortua, ordaindu gabeko lan-orduak, epe motzerako lanaldiak, miseriak soldadak eta lan-baldintza penagarriak, bat-bateko kanporaketak, etxebizitzarako aukera eza, familiaren gaitasun ekonomikoarekiko dependentzia izugarria, bizitza egonkortua garatzeko ezintasun erreala...» (Ibarzabal, 2019).

Amaitzeko, esan beharra dago agerian geratzen dela hasieran aipatzen genuen haustura ekonomiko erreala dela, «atzera bueltarik ez» duena. Argitzeko dagoena, ordea, honakoa da: «haustura ekonomiko haustura politiko bihurtzea» posible izango ote den (Ibarzabal, 2019). Hau da, ea belaunaldi berriak bizi duten egoera gordinari aurre egiten saiatuko ote diren, duela hamar urte inguru mundu guztiko plazak bete zituen olatuari jarraipena emanaz, edo horrekin errotik apurtuz, beste perspektiba batetik.

7. Bibliografia

20minutos (2022ko otsailak 10): «El 20% de los universitarios cursa una FP al acabar la carrera para “aumentar la formación y la inserción laboral”», *20minutos*, <<https://www.20minutos.es/noticia/4954901/0/el-20-de-los-universitarios-cursa-una-fp-al-acabar-la-carrera-para-aumentar-la-formacion-y-la-insercion-laboral/>>.

ABC (2019ko ekainak 28): «Los sueldos bajan un 1,9% desde el inicio de la crisis mientras que el coste de la vida aumenta un 13,7%», *ABC*, <https://www.abc.es/economia/abc-sueldos-acumulan-descenso-19-por-ciento-desde-inicio-crisis-201906281220_noticia.html?ref=https%3A%2F%2Fwww.abc.es%2Feconomia%2Fabc-sueldos-acumulan-descenso-19-por-ciento-desde-inicio-crisis-201906281220_noticia.html>.

- Álvarez, N. eta Medialdea, B. (2005): «Ajuste neoliberal y pobreza salarial: los “working poor” en la Unión Europea», *Viento Sur*, 82, 56-64.
- Askunze, D. (2020): «Burujabetza aldaketa sozialerako: bide nazionala erreformari», *Gedar Langile Kazeta*, <<https://gedar.eus/koiuntura/burujabetza-aldaketa-sozialerako-bide-nazionala-erreformari>>.
- Aula Virtual Fundación de los Comunes (2020ko otsailak 26): *El imperativo competitivo: patologías de la normalidad, subjetividad y sufrimiento | Jordi Maiso* [Video], Youtube, <<https://www.youtube.com/watch?v=ue7cWHBihBE&t=4038s>>.
- Badiou, A. (2016): *La verdadera vida: un mensaje a los jóvenes*, Malpaso Editorial.
- Bilbao, M.; Longo, O. eta Corcuera, N. (2019): *Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2019*, Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jauraritzaaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/noticia/diagnostikoa_19/eu_def/adjuntos/diagnostico_2019_e.pdf>.
- Boero, P.; Guevara, L.; Sandoval, A.; Villar, J. eta Vinet, E. (2019): «Individuación en la Adultez Emergente (AE): Una forma diferente de convertirse en adulto», *Redes*, 43, 65-74.
- Castillo, J. (2018): «Gazteak: kontzientzia eta militantzia politikoa egungo kapitalismoan», *Borroka Garaia da!*, <<https://borrokagaraia.wordpress.com/2018/06/29/gazteak-kontzientzia-eta-militantzia-politiko-egungo-kapitalismoan/>>.
- Castillo, J. (2021): «Después del 15M: ¿qué viene ahora?», *Jacobin*, <<https://jacobinlat.com/2021/06/12/diez-anos-del-15m-que-viene-ahora/>>.
- Consejo de la Juventud de España (2020): *Observatorio de Emancipación segundo semestre 2020*, <<http://www.cje.org/descargas/cje7663.pdf>>.
- Del Rosal, M. (2021): «Los jóvenes de hoy en día», *NR Periodismo Alternativo*, <<https://nuevarevolucion.es/los-jovenes-de-hoy-en-dia/>>.
- El Economista (2021eko irailak 23): «Los estudiantes de FP aumentan más de un 65% en la última década», *elEconomista.es*, <<https://www.economista.es/especial-formacion/noticias/11360304/08/21/Los-estudiantes-de-FP-aumentan-mas-de-un-65-en-la-ultima-decada.html>>.
- Euskal Estatistika Erakundea (2021): *Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, Euskal AEn, lurralde eta irakaskuntza-mailaren arabera, zentroaren titulartasunari eta hizkuntza ereduari jarraiki. Datu-aurrerapena. 2021/22*, <https://www.eustat.eus/elementos/tbl0002427_e.html>.
- EITB (2020ko urtarrilak 24): «Lanbide Heziketa Dualeko matrikulazioak gora egin du 2019-2020 ikasturtean», *Eitb.eus*, <<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/6982303/lanbide-heziketa-dualeko-matrikulazioak-egin-du-20192020-ikasturtean/>>.
- EUSTAT (2020): *Tasa de abandono escolar prematuro (*) de la población de 18 a 24 años de la C. A. de Euskadi y de los países de la Unión Europea. 1994-2019*, <https://es.eustat.eus/elementos/ele0017100/ti_tasa-de-abandono-escolar-prematuro-de-la-poblacion-de-18-a-24-anos-de-la-c-a-de-euskadi-y-de-los-paises-de-la-union-europea-1994-2019/tbl0017192_c.html>.
- EUSTAT (2021a): *Alumnado matriculado en las universidades de la C.A. de Euskadi por titularidad del centro y rama de estudios, según nivel de estudios y sexo. 2019/20*, <https://www.eustat.eus/elementos/tbl0003204_c.html>.
- EUSTAT (2021b): *Euskal AEko batez besteko errenta pertsonala, sexu, adinaren (bosturteka) errenta-motaren arabera (euro). 2019*, <https://www.eustat.eus/elementos/tbl0002166_e.html>.
- EUSTAT (2021c): *La Formación Profesional atrajo a casi el doble de hombres que de mujeres en el curso 2019/20 en la C.A. de Euskadi*, <<https://www.eustat.eus/elementos/>>

- la-formacion-profesional-atrajo-a-casi-el-doble-de-hombres-que-de-mujeres-en-el-curso-201920-en-la-ca-de-euskadi/not0018378_c.html>.
- Garin, N. (2022): «Hezkuntzaren masa izaera galbidean», *Arteka*, 26, 42-51.
- Gazteen Euskal Behatokia (2019): *Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa*, <<https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/libro/euskadiko-gazteen-egoeraren-diagnostikoa-2019-diagnostico-de-la-situacion-de-la-juventud-de-euskadi-2019/>>.
- Gedar Langile Kazeta (2021eko apirilak 4): «IAk mobilizazioak egingo ditu apirilaren 22an, "Langile klasearen hezkuntzarako sarbidea defendatu!" lelopean», *Gedar Langile Kazeta*, <<https://gedar.eus/aktualitatea/iak-mobilizazioak-egingo-ditu-apirilaren-22an-%E2%80%9Ciangile-klasearen-hezkuntzarako-sarbidea-defendatu!%E2%80%9D-lemapean/>>.
- Goitiandia, M. (2020): «Krisia», *Arteka*, 5, 24-27.
- HETEL (2022): *Lan egoeraren urteko txostena HETEL ikastetxeetako heziketa zikloetan 2020-2021 ikasturtea*, <https://www.hetel.eus/images/PDF/INFORME_SITUACION_LABORAL_2020-2021_PARA_RDP.pdf>.
- HuffPost (2021eko abuztuak 12): «La edad media de las personas que comparten piso en España sube hasta los 33 años», *HuffPost*, <https://www.huffingtonpost.es/entry/la-edad-media-de-las-personas-que-comparten-piso-en-espana-sube-hasta-los-33-anos_es_61148746e4b07b9118a741c9>.
- Ibarzabal, A. (2019): «Gazte problematikaz», *El Salto*, <<https://www.elsaltodiario.com/juventud/gazte-problematikaz>>.
- Lanbide (2020): *Estudio de Incorporación a la Vida Laboral en 2020-IV*, <https://www.ehu.eus/documents/1432750/1436240/UPV_PROM17_CAS.pdf/4fc8ae4e-7cb8-bdfa-f90a-f7483f9fd483?t=1631868901742>.
- Loach, K. (2019): *Sorry we missed you* [Filma].
- Luxemburgo, R. (1974): *Introducción a la economía política*, Siglo XXI de España Editores, SA.
- Maiso, J. (2016): «Crisis del capitalismo y precarización de la existencia: algunas coordenadas para la crítica ante la nueva barbarie», in P. Álvarez-Blanco eta A. Gómez (argtz.), *La imaginación hipotecada. Aportaciones al debate sobre la precariedad del presente*, Libros en acción, Madril.
- Makazaga, E. (2021): «Kapitalaren modernizazioa hezkuntzan», *Gedar Langile Kazeta*, <<https://gedar.eus/ikuspuntua/kapitalaren-modernizazioa-hezkuntzan>>.
- MG Knowledge (2022ko maiatzak 12): *ERGO PRO, ILL PEKEÑO - RIQUELME & OKOCHA (Prod. GESE DA O) (VIDEOCLIP)* [Video], Youtube, <<https://www.youtube.com/watch?v=sMe4KqmxITk>>.
- Ministerio de Educación y Formación Profesional (2021): *Sistema estatal de indicadores de la educación 2021*, <<https://www.educacionyfp.gob.es/inee/indicadores/sistema-estatal/ultima-edicion.html>>.
- Moreno, A.; López, A. eta Segado, S. (2012): *La transición de los jóvenes a la vida adulta*, Obra Social «La Caixa», Bartzelona, <https://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Boletin_ECOS/27/transicion_jovenes_vida_adulta.pdf>.
- Moreno, A. eta Sánchez, F. (2020): «La diversidad de las transiciones juveniles en España desde un análisis socio-demográfico», *Revista Española de Sociología*, 29 (3, eransk. 2), 47-68.
- Perez, N. [nadia_ph_14] (11 de mayo de 2021): Jaiotze-tasen beherakada historikoaren albistea ezagutu ahal izan genuen atzo. Aspalditik datorren fenomenoa bada ere, 2008tik aurrea tendentzia argi bezala identifikatu daiteke EUSTAT-ek aditzera eman duenaren arabera. [Tweet] <https://twitter.com/nadia_ph_14/status/1392219847455543302>.

- Petersen, A.H. (2021): *No puedo más. Cómo se convirtieron los millennials en la generación quemada*, Capitán Swing.
- Prat, O. (2021eko maiatzak 10): «EITB DATA: Jaiotzek behera egin dute Euskadin, 1941az geroztiko minimo historikoraino», EITB, <<https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/8039466/eitb-data-maiatzak-10-jaiotzatasak-behera-egin-du-1941az-geroztiko-gutxiena/>>.
- Rodríguez, E. (2022): *El efecto clase media. Crítica y crisis de la paz social*, Traficantes de Sueños.
- Rubio, J. (2013): *Empleo para unos/as, castigo para otros/as*, <<https://www.todoporhacer.org/empleo-para-unosas-castigo-para-otrosas/>>.
- Santander, N. (2020): «Análisi sozioekonomiko laburra: ofentsiba kapitalista eta emakumeen proletarizazioa», *Gedar Langile Kazeta*, <<https://gedar.eus/ikuspuntua/analisi-sozioekonomiko-laburra-ofentsiba-kapitalista-eta-emakumeen-proletarizazioa->>.
- Soler, P. (2021eko abuztuak 22): «España, bronce en universitarios más sobrecualificados de la Unión Europea», *El Confidencial*, <https://www.elconfidencial.com/economia/2021-08-22/espana-bronce-universitarios-sobrecualificados_3238586/>.
- UPV/EHU (2014): *Gaztetasun amaigabetik heldutasun prekariora*, <https://www.ehu.eus/eu/-/20141103_juventud_madurez>.
- UPV/EHU (2021): *UPV/EHUko 10 ikasleetatik 9 lanean daude, graduatu eta 3 urtera*, <<https://www.ehu.eus/eu/-/upv/ehuko-10-ikasleetatik-9-lanean-daude-graduatu-eta-3-urtera>>.
- Yenikoy (2019): «Kapitalaren despotismoa eta proletariotza», *Gedar Langile Kazeta*, <https://gedar.eus/assets/pdf/lz/20191119_Kapitalaren_despotismoa_eta_proletariotza.pdf>.
- Zizek, S. (2013): *El año que soñamos peligrosamente*, Akal.

